



BALIO PROPOSAMENA

Duela urte batzuk Amaiur, Iria eta Yera ezagutu nituen. Gaur egun oso lagun onak gara eta proiektu bat aurrera eramatea erabaki dugu. Gero eta gaixotasun gehiagotaz ohartarazten gara eta informazio gehiago dugu aurrerapen teknologikoei esker. Horietako bat zeliakismoa da, nik dudan gaixotasuna.

Nire egunerokotasunean zaila egiten zait glutenik gabeko produktu ez industrialak aurkitzea, kontuan izan gabe produktuak dituzten prezioak. Pertsona zeliakak janaria eskuratzeko ditugun zailtasunen ondorioz, erabaki dugu glutenik gabeko okindegi bat egitea.



Glutenik gabeko produktu aniztasun handia dagoen arren, zeliakoak arazo batekin bizi behar dugu: kutsadura gurutzatua. Gure produktuak ez dute inolako kontakturik izango glutena duten beste produktu batzuekin, eta gure sukaldean ez dira ekoitziko glutena duten produkturik. Zeliakoak garenok kontsumitu behar ditugun glutenik gabeko produktuak, glutena duen produktu baten leku berean prestatu ez izanaren beldurrarekin bizi behar dugu. Gure produktuek eskeiniko dutena eta beste enpresa batzuegandik bereiziko gaituena arazo hori ekiditzea da.

Glutenik gabeko janaria sortzeaz gain, eskainiko ditugun produktu guztiak kutsadura gurutzaturik gabekoak izango dira, gure sukaldean bertan sortutakoak. Produktuen ekoizpen prozesua ikusgarria izango da, bezeroei segurtasuna transmititzea helburu baitdugu. Horretarako sukaldean lehio bat jarriko dugu produktuen prozesua ikusi ahal izateko...